

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresa aurrera eramateko, ezinbestekoa da bazkideen eta funtsezko eragileen sare bat izatea, gure zerbitzuak arrakasta izan dezan beharrezkoak diren tresnak, baliabideak eta euskarria emango dizkiguna.

Proiektuaren inplementazioan eta arrakastan lagunduko duten hainbat eragile aurki ditzakegu. Horien artean, osasun mentaleko espezialistak, hala nola **psikologoak, psikiatrak edo terapeutak**. Profesional horiek arduratzen dira terapiak diseinatzeaz eta emateaz, pazienteen aurrerapena gainbegiratzuz. Osasun mentalean adituak dira, eta errealitate birtualeko teknologia sartzen dute saio terapeutikoetan, tratamenduak eraginkorrak eta paziente bakoitzaren behar espezifikoetarako egokiak direla ziurtatuz. Hala ere, osasun mentaleko zentroekin ere badugu harremana, zehazki, **"Mentalia Salud"** enpresarekin. Honek osasun mentalean arazoak dituzten pertsonen arreta ematen dioten adituak dira. DomusVi enpresako kidea da, Espainian zerbitzu soziosanitarioetan liderra.

<https://mentaliasalud.es/>

Gainera, errealitate birtualarekin lan egitean, software-garatzailerak eta errealitate birtuala gure eragileetako bat izango dira. Funtsezko zeregina dute garapen teknologikoan. Terapiarako ingurune birtual seguruak, interaktiboak eta eraginkorrak sortzeaz arduratzen dira. Plataforma teknologikoak ere mantentzen eta eguneratzen dituzte. **"Two reality"** enpresarekin lan egiten dugu, errealitate birtuala areagotua eta mistoa garatzen dutelako. Enpresa honek sortu egin zen enpresei errealitate birtuala akzioak sortzen laguntzeko. Horreegatik pentsatu egin dugu beraiekin harremana izatea.

Osasun-erakundeak ere kontuan hartuko ditugu. Ospitaleak, klinikak eta osasun-zentroak izan daitezke ingurune klinikoetan errealitate birtualeko terapia ezar dezaketen aliatuak, tratamendu-eskaintzaren zati gisa. Gainera, erakunde horiek pazienteak gure klinikara bidali ditzakete, onuradunen kopurua handitzen lagunduz. Erakunde horiek **Osakidetza eta IMQ** izango dira. Osakidetzarekiko eta IMQrekiko elkarteei esker, nerabeentzako irtenbide integrala eskaintzen dugu, sektore publikoa zein pribatua barnean hartuta. Aliantza horiek gure irismena handitzeaz gain, sinesgarritasun kliniko, ikusgarritasuna eta gure errealitate birtualeko terapiak zientifikoki baliozkotzeko aukera ere ematen digute. Funtsezko elkarte horiei esker, baliabide irisgarri, berritzaile eta oso fidagarria gara Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen osasun mentalaren tratamenduan.

Baina ez osasun-erakundeek bakarrik, baita **hezkuntza-erakundeek** ere, gure foku nagusia antsietatea duten nerabeak baitira. Hezkuntza-erakundeak funtsezko bazkideak dira gure enpresarentzat, zuzeneko sarbidea ematen baitigute presio akademikoaren, azterketen eta eskolako gizarte-bizitzaren ondorioz antsietate-egoerei aurre egiten dieten nerabeentzat. Ikastetxe eta institutuekin lankidetzan aritzean, murgiltze-terapiako programak sar ditzakegu hezkuntza-ingurunean, antsietatea eta estresa jasaten duten ikasleentzat konponbide eskuragarri eta eraginkorra eskainiz. Elkarte horiek gazteen osasun mentalari buruzko kontzientziazio-kanpainak egiteko eta gure zerbitzuaren ikusgarritasuna handitzeko aukera ere ematen digute.